

## BILGUMA BEREZIAREN EGINTZA.



Uri ontako Euskal-itz jostaldien Bilguma dator gaur kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zér nolakoa dan, aurten, izkribatzalle, pinta-tzalle eta musikalarien indar-neurtzeetan, Batzar-epalle bereziak erabaki duten sari-emaldia.

Irakurgai onenari eskeñitako *sariya* irabazi du On Karmelo Echegaray jaunak, «Kontu zarrak» deritzaiona gatik, dalako azaldeari dagokiola eroso izkribatua.

*Union Artesana* deritzaion elkargoak eskeñitako *sariya* eraman du On Toribio Alzaga jaunak «Okendo» izendatzen dan irakurgaiagatik, zeña dan donostiarrentzat maitagarria, eta dagon ederki pensatu ta egiña uri ontako izkera eztsuan.

Aldeera eman zaio «Arrechinaga» azalkaitzat duenari, Bizkaiko euskaran polliki moldatua dagolako. Bere egillea da On Rafael Murga ta Mugartegi jauna.

Edozein gai ta neurritan izkribatutako biursakintzik onenarentzat agindutako *sariya* irabazi du On Migel Antonio Iñarra jaunak «Arrantza» izentzat daukan moldaeraren egillea dalako, izanik bere lana arretaz egiña, itz-neurtuetan nai litzaken etorri errazekoa agertzen ezpada ere.

Aldeera eraman du On Domingo Agirre jaunak, «Ichas ertzian» azalkaitzat duenagatik, zeña dan Bizkaiko euskaran samur eta garbi aurkeztua.

*Aipamen onragarria* merezi izan du «Birjiña Amari» deritzaionak, izkera goñuan, sentimentuz izkribatua dalako. Beraren egillea Rosario Artola.

*Jostirudiko sariya* irabazi zuen joan dan urteko Euskal-festan On Ignazio Iribarren jaunak, zentzuz, eta guztiz egoki, zegokion lana egin zuelako.

Ill onen 13-an, goizeko amaiketan, izandu zan, lenez aurretik adierazi zan bezela, 15 urtetik berako neška-muñillen euskarazko esamiña: beste urtietan baño askoz geiago etorri ziran, denak irakurri ta izkribaturik ondo gure izkuntz maitean, egiñik ederkiena Inozenzia Arangoa, Adrian Loyarte, Bonifazio Echegaray, Pedro Goñi ta beste batzuek.

Pintatzalleen indar-neurtzean, irabazi dituzte *sariyak* On Migel Altube ta On Federiko Albarez jaunak, «San Elias-en Eleizachoa (Oñatin)» ta «Angelus» izentzat dituzten lanak gatik, eramanik gañera *Aldeera* On Migel Altube jaunak «Laguná» azalkaitzat daukana gatik.

Musikalarien indar-neurtzean, On Eduardo Mokoroa ta On Romualdo Gochikoa izan dira *sarituak* «Euskal-soñua» ta «Euskaldun baten oroitza» izendatzen diran moldaerak gatik; eta *aldeera* eman zaio On Klaudio Jauregi jaunari «Bandera baten oroitza» azalkaitzat duenaren egillea dalako.

Gañerako sariyak jabegabetuak gelditu dira. Au erabaki da, lan guztiak kontuz esamiñatu ta gero.

Bukatu baño len, Batzarreak donkitzen dio oroitz bat Bere Gainde Prinzipe Luis Luziano Bonaparte, gure Euskera ainbeste onratu ondoren, aurten ill danari.

Gu ill ta gero ere ¡*Bizi bedi Euskera!*

Donostian, 1891-ko Abenduaren 17-an.

Bilguma bereziaren izenean: JOSÉ OLANO, *Dianaqusia*. = ANTONIO ARZÁC, *Goarpelaria*.

